

ORIXE-K IRABAZI DU "LIZARDI" JOSE MARIA AGIRRE-REN GORAZARREZ ANTOLATUTAKO POESIA-SARIKETA

1961 maiatzaren 26-an Antonio Maria Labayen eta Manuel Lecuona juraduko jaunak erabaki zuten. Eusebio Erkiaga jaunak etzuen parte artu juraduan lana bialdu zuelako sariketara.

Orixeren "Lau urtaroak nere begietan" lanak irabazi zuen lenengo saria. Bere baserri-lirika txukunez, bere izkuntzaren eta itz-neurtuen erreztasunez, lanaren batasunez, eta nun-naitik darion pakezko izatez, itz batean, olerki guztiaren benetako lizarditasunez.

Bigarren saria Jose Maria Aranalde apezaren "Len eta Orain" lanak.

Eta irugarren saria Lukax Dorronsororen apezaren "Kaiolatik iges" lanak.

GABRIEL ARESTI-K IRABAZI DU 1961 TORIBIO ALZAGA TEATRO-SARIA

"1961-garren urterako ipiñita zegoen "Toribio Alzaga" teatro-saria emateko izendatu zan batzarrekoak bildu dira eta ago batez erabaki dute:

"Mugaldeko herrian eginikako tobera" izeneko teatro-lanari "Toribio Alzaga" saria ematea. Begiratu da egillea nor dan eta Gabriel Aresti dala ikusi da. Eta jakin dedin, agiri au bete eta firmatzen dute 1961 irailaren 22-an. Luis Michelena, Antonio Arrue, Aita Villasante O.F.M."

Obra au sariketara bialdutako amaseiren artean aukeratua izan zan.

Gabriel Aresti Bilbon jaio zan 1933 urriaren 14-an eta bertan egin zituan bere estudioak. Indar eta nortasun aundiko idazle bezela ezagutzen da euskal-letretan eta euskal-poetarik onenetakoa bezela. Lendabiziko saria lortu zuen 1959 urtean "Loramendi"-ren gorazarrez Euskaltzaindiak egin zuen poesia sariketari. Bere poesiazko eta bestelako lanak EGAN-en eta EUSKERA-n irakurri ditezke. Euskaltzaindiko urgazlerik gazteena da.

Toribio Alzaga teatro-saria urte birik bein ematen da, eta 1963 urtean ematea tokatzen da berriro.

EUSEBIO ERQUIAGA-K IRABAZI DU 1961 URTEAN DOMINGO AGIRRE NOVELA-SARIA

"1961-garren urterako ipiñita zegoen "Domingo Agirre" novela-saria emateko izendatu zan batzarrekoak bildu dira eta ago batez erabaki dute:

"Batetik bestera" izeneko novelari ematea "Domingo Agirre"saria. Begiratu da egillea nor dan eta Eusebio Erkiaga dala ikusi da.